

ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE-ARAUDIA ALDATZEKO PROPOSAMENARI ZUZENKETAK AURKEZTEKO ETA BOZKETAK EGITEKO 2025EKO ARAUDIA

1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedea EROSKI Koop. E-ren 2025eko ekaineko Ohiko Batzar Nagusia prestatu eta antolatzea da, EROSKI Koop. E-ren Estatutu Sozialen 49 Bi artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta, bereziki, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO PROIEKTUA PRESTATZEKO ETA BOZKATZEKO BARNE-PROZEDURA ZEHAZTEA.

2. artikulua. ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO proiektua

Batzar Nagusiaren bilkuran, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO PROIEKTUARI ETA AURKEZTUTAKO ZUZENKETEI BURUZKO EZTABAIDA EGINGO DA ETA HORIEN GAINEKO ERABAKI BAT HARTUKO DA, ARAUDI honetan xedatutakoaren arabera.

3. artikulua. ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO PROIEKTUAREN zirriborroari “hobekuntza-proposamenak” aurkeztea

Bat. Kontseilu Errektoreak 2025eko otsaileko ohiko bilkuran zirriborroa onetsi ondoren, zirriborro hori lan-bazkide guztiei ezagutaraziko zaie, kooperatibako bazkide guztiei zuzendutako aparteko informazio-bileren bidez, bazkide orok izan dezan testuari “hobekuntza-proposamenak” egiteko aukera. Bilera horiek martxoaren 17, 18 eta 21 bitartean egingo dira.

Bi. Kontseilu Errektoreak “hobekuntza-proposamen” guztiak hartuko ditu kontuan, betiere idatziz eta epearen barruan aurkezten badira. Epea **2025eko apirilaren 16ko 24:00etan** amaituko da.

Hiru. “Hobekuntza-proposamenak” EROSKI Koop. E-ren letradu aholkularia den M^a Cristina Ochoa Pérez andreari helaraziko zaizkio, eskura emanez edota posta arruntez, barne-postaz edo posta elektronikoz bidaliz.

Lau. Jasotako “hobekuntza-proposamen” guztiak deskribatutako prozedurari jarraikiz aztertuko ditu Kontseilu Errektoreak, eta apirilean egingo duen ohiko bilkuran proposamen horiek testuan txertatzeari buruzko jarrera bat hartuko du Kontseilu Errektoreak, ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO proiektua onetsiz, zeina 2025eko ekaineko Ohiko Batzar Nagusian bozkatuko den.

4. artikulua. ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO PROIEKTUARI “ZUZENKETAK” AURKEZTEA

Bat. Kontseilu Errektoreak ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO proiektua apirileko bilkuran onetsi ondoren, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako delegatuekin bilerak egitea sustatuko du, Estatutuak aldatzeari eta bozkatuko den proposamen justifikatuari buruzko gai-zerrendako puntua zehazteko. Beranduenez 2025eko maiatzaren 8ra arte egingo diren bilera horietan, proposatutako aldaketari buruz behar dituzten argibide guztiak emango zaizkie delegatuei, haren gainean jarrera bat hartu ahal izan dezaten.

Bi. Kontseilu Errektoreak onetsitako ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO PROIEKTUARI “ZUZENKETAK” aurkeztu ahal izango dizkiote 2025eko ekaineko ohiko bilkurara joaten diren Batzar Nagusiko delegatuek, betiere idatziz eta epearen barruan aurkezten badituzte. Epea **2025eko maiatzaren 19ko 24:00etan**

amaituko da.

Hiru. “Zuzenketak” EROSKI Koop. E-ren letradu aholkularia den M^a Cristina Ochoa Pérez andreari helaraziko zaizkio, eskura emanaz edota posta arruntez, barne-postaz edo posta elektronikoz bidaliz.

Lau. Ondoren, eta Batzar Nagusiak bilkura egin aurretik, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako delegatuekin bilera berriak egitea sustatuko du, Batzarraren gai-zerrendako puntu guztiak eta bozkatuko den proposamen justifikatua zehazteko. Estatutuen aldaketari aurkeztutako zuzenketen berri ere emango da.

Bost. “Zuzenketa” formulatu duen delegatuak jardungo du Batzar Nagusian haren defendatzaile gisa.

Sei. Batzar Nagusian ezin izango da in voce zuzenketarik aurkeztu.

5. artikulua. “Zuzenketak” kalifikatzea

Bat. Kontseilu Errektoreak 2025eko maiatzaren 22ko ohiko bilkuran kalifikatuko ditu epearen barruan aurkeztu diren “zuzenketak”, eta funtsezko edota formazko gisa sailkatuko ditu.

Bi. “Funtsezko zuzenketak” proiektuaren testuaren edukia aldatzen dutenak dira.

Hiru. “Formazko zuzenketak” proiektuaren testuaren edukia aldatzen ez dutenak dira. Kontseilu Errektoreak onartu, egokitu edo ezetsi egingo ditu, bere irizpidearen arabera.

Lau. Kontseilu Errektoreak onartzen ez dituen “zuzenketak” zuzenketa horiek aurkeztu dituzten delegatuek defendatu ahal izango dituzte Batzar Nagusian, eta Batzar Nagusiak erabakiko du zuzenketa horiek proiektuaren testuan sartzea komeni den, 6. artikuluan ezarritako eztatbaida- eta bozketa-prozeduraren arabera.

Bosgarrena. Bai Kontseilu Errektoreak onetsitako ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEKO proiektua eta bai deskribatutako prozeduraren arabera aurkeztutako “zuzenketak” behar besteko aurrerapenarekin bidaliko zaizkie Batzar Nagusiko delegatuei, Batzar Nagusiaren gainerako dokumentazioarekin batera.

6. artikulua. Batzar Nagusiko eztatbaida eta bozketa

Bat. Aztertutako gai edo gai-talde bakoitzaren barruan, “zuzenketak” aztertzeke ordena, “zuzenketen” gainerako eztatbaida eta esku-hartzeen txanda librea artikulua honetan eztatbaidatzeko proposatutako arauak aplikatuz egingo dira.

Bi. Lehendakariak moderatu eta ordenatuko du eztatbaida, eta aukera izango du aztertutako gai bakoitzari buruz izan dezakeen iritzia adierazteko.

Hiru. “Zuzenketa” bakoitza haren testuaren azalpen-laburpen motz bat egin ondoren eztatbaidatuko da. Azalpen-laburpen hori “zuzenketa” formulatu duen delegatuak egingo du.

Lau. Artikuluei egindako “zuzenketak” banan-banan aztertuko dira.

Bost. “Zuzenketa” bakoitza eztatbaidatzen hastean, zuzenketaren egileak, labur-labur, proposatutako aldaketa justifikatzen duten arrazoiak azalduko ditu. Jarraian, eta zuzenketaren egileari emandako denbora gairatutako gabe, Kontseilu Errektoreak izendatutako hizlari batek zuzendu nahi den testuaren defentsa edo zuzenketaren onarpena planteatuko du.

“Zuzenketak” bozkatu aurretik, esku-hartze libreen txanda irekiko da, zeina lehendakariak bideratuko duen.

Sei. Batzar Nagusiak emandako baliozko botoetatik aldeko gehiengoa lortzen duten

“zuzenketak” proiektuaren testuan jasoko dira, nahiz eta zuzenketaren hasierako proposatzaileak “zuzenketa” atzera botatzeko asmoa azaldu. Horretarako, baiezkoak eta ezezkoak bakarrik joko dira emandako baliozko bototzat, eta, beraz, baztertu egingo dira boto zuriak, baliogabeak eta abstentzioak.

Zazpi. *Batzar Nagusiak, proiektuaren behin betiko testua onesteaz gain, proiektuaren testuaren edukia praktikan jartzeko ebazpen osagarriak ere hartu ahal izango ditu.*

7. artikulua. Interpretazioa eta omisioak

Kontseilu Errektoreak du araudi hau interpretatzeko eta omisioak betetzeko eskumena, Batzar Nagusiak bilkura egin aurretik nahiz ondoren, Batzar Nagusiaren eskumenetan eragozpenik sortu gabe.

Kontseilu Errektoreak onetsia
2025eko otsailaren 27an